



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

2016-2017 IKASTURTEKO IKASTAROAK

Ikasturte berri bat daukagu aurretik eta aurtengoan ere horren arrakastatsuak diren ikastaroak eta proposamen berriak eskainiko ditugu herritar guztion artean herria bizirik manten dezagun.

Orri honen bestaldean dituzue aurreko ikasturtean egindako ikastaro eta ekintzak (letra lodiz idatziak) eta aurreko urteetan herritarrok proposatutakoak. Bertan ez dagoenik nahi izanez gero, orrialdearen amaieran idatz dezakezue.

► Hainbat ohar ikastaroei buruz:

- Zerrenda egoteak ez du esan nahi ikastaro hauek guztiak antolatuko direnik.
- Ikastaroa egiteko **gutxienez 5 parte-hartzailek** izena eman beharko dute.
- Orri hau izena emateko da soilik. Matrikula-orria egingo diren ikastaroak zehazten direnean jasoko duzue.

► Ikastaroen xehetasunak:

- Iaz bezala, Udalak herritarrei **hilean %75eko laguntza** eskainiko die ikastaroetan parte hartzeagatik, **betiere, klaseen %75eko bertaratzea badago** hilabete bakoitzean. Urte osoan herritar bakoitzak osotara jaso dezakeen **gehienezko laguntza 200 €**-koa da.
- **Matrikulak osorik bete behar dira**, hau da, urte osokoek ekaina arte eta hiru hilabetekoek zehaztutako iraupena.
- **Matrikulan baja emateko soilik salbuespen hauek onartuko dira: osasun arazoa edo zaintza egin beharra.**

Orri hau beteta jasotzeko epemuga **irailaren 8a** izango da. Udaletxeko idazkaritzan eman dezakezue, udaleko buzoian edo emailaz bidali.

Orendainen, 2016ko irailaren 2an.

Orendaingo Udala

2016-2017 IKASTAROETAN IZEN-EMATEA

Zerrenda honetan iaz egindako ikastaroak (letra lodiz idatziak) eta aurreko urteetan proposatutakoak dituzue.

Izen-abizenak idatzi parte hartu nahi duzuen ikastaroen alboan.

URTE OSOKOAK

Yoga	
Jostekoa	
Umeen ludoteka	
Adinekoen topalekua eta gimnasia	
Panderoa	
Trikitrixa	
Pilates	
Spinning	
Dantza	
Zunba	
Baratza agroekologikoa	
Ariketa fisikoa (luzamenduak, muskulazioa...)	
Euskara	
Ingelesa helduentzat	
Ingelesa umeentzat	

HIRU HILABETEKOAK ETA TAILERRAK

Umeen hezkuntza eta adimen emozionala	
Brikolajea	
Sukaldaritza	
Argazkigintza	
Informatika	
Autodefentsa feminista	
Lehen laguntza eta sorospen ikastaroa	
Birziklaia eta berrerabilpen tailerra	
Kotxearen ohiko konponketak eta mantenua	
Antzerkia	
Aretoko dantzak	
Eskulanak	
Judoa umeentzat	
Erremedio eta kosmetika naturalak	
Aerobic	
Marrazketa eta pintura	

HERRITARRON ARTEAN ANTOLATU DITZAKEGUNAK

Korua	
Irakurle taldea	
Denboraren bankua edota truke taldea	
Elkartasun taldea (adinekoei bisitak egiteko...)	

BESTELAKO PROPOSAMENIK BADUZU HEMEN IDATZI
